

Zainak: Euskal Herriko gizarte eta kultur bilakaeraren agerkari eta hurbilketa anitzak

Juan Antonio Rubio-Ardanaz
Isusko Vivas Ziarrusta

"Bitxia da –idatzi zuen koadernoetan–, zenbat eta iragana gehiago aztertu, etorkizuna gehiago interesatzen zait; eta zenbat eta gehiago aztertu gure lurretako gizakiaren ohiturak eta joerak, orduan eta gehiago ezagutu nahi ditut gainerako gizakien bizimoduak. Interesak baizik ez du interesa sortzen. Ezagutzaren bidez baizik ez da ezaguna preziatzen".

Antxon Aguirre Sorondo

Antropologiatik zuzenduriko begiradak aldarte berri bat aurkitu du oraingo honetan, *Zainak. Antropologia-Etnografia Koadernoak* aldizkariaren orrialdeetan, adierazpen horren gidalerro nahiz proiektio legez. Eta hori, gizarte-bizitzaren aldaketa-egoera dibertsio baten aurrean agertzen zaigun testuinguruan egiten du, horietako aldaketa batzuk, antropologia-ikerketaren objektu izaten doazen neurrian. Errealitate berriak baitira, ikerlarien atentzioa pizten dutenak eta maiz aurreikusitakoak diren abaguneetan datuen ekarpenak egiteko zein ezagutza deritzogun ondasun baliotsua azaltzeko eta interpretatzeko gai direnak. Ibilbide honetan gure aldizkaria erantzunak plazaratzen saiatu izan da, gaien zerrenda luze eta zabala egituratuz, berauek gizarte eta kultur bizitzaren lekuko izan direnak; birpasa horixe bilakatu baitzaigu azken lau hamarraldietan gure herriaren joan-etorrien eta aldakortasunaren froga aparta.

Argitaratuak izan diren zenbakietatik ibilbide laburra egingo bagenu, unean une bakoitzeko ezinegonak gerturatuko lizkiguke. Adibide gisa lauogeigarren hamarkadaren hastapenean, orduko garaian *'saileko koadernoak'* izenburuarekin identifikaturiko lehen zenbakian, Joxe Miel Barandiaran zenak etxebizitza, sendia, auzokideak, administrazio-erak eta euren funtzioez gain, halako bestelako gaietan arretaren erdigunea jartzea proposatzen zuen; batez ere nekazal eta abeltzain ziren ingurumarietan. Horiei gehitzen zien euskal zuzenbidea delako alorra; artea gizakiaren mundu-ikuspegiaren eta egon ezinen espresio-adierazle den heinean, edota bizitza interpretatzeko moduak; pentsatzeko eta aritzeko formen inguruko soluzio komunak; eta euskal kulturaren aurrekariak, non ikerkuntzak zientzia historiako¹ bitarteko, bere bidea ireki behar baitzuen.

Paradigma kulturalistak irudikatutako lerroa beste perspektiba batzuen laguntzaz osatuko da, batik bat estruktural funtzionalismoaren parametroetan ikasiak izan ziren antropologoek erakarriak. Lauogeita hamarreko urteen amaieren, gure argitalpena geroz eta argiroago aberastuko da antropologia sinbolikoaren eta ekologikoaren esparruetan interesa jartzen duten ikerketekin, baita gizarte eta kultur modeloen ber-identifikazioan eta mugako identitatean ere, Kepa Fernández de Larrinoa, Claude Dendaletche, Josetxu Martínez Montoya edo José A. Perales Díazen² ekarpenetan, besteak beste, islatua gelditzen den bezalaxe. Momentu honetatik aitzinera, mendiko eta baserri giroko komunitateenganako interes berezia nozitzen da, adierazi diren teoriatzko eta kategoriatzko orientabideetan oinarrituak³.

1. J. M. de BARANDIARÁN. "Nota preliminar". In: *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía. Prehistoria-Arqueología*, 1, 1983; 8-9. or.

2. Joera berri hauen adierazle honako ekarpenak liriateke: K. FERNÁNDEZ DE LARRINOA. "Estructuras emergentes". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 1987, 14; 375-389. or.; C. DENDALETICHE. "Ecologie et anthropologie des montagnes. Essai de définition d'un champ de recherches et d'actions". In: *loc. cit.*; 15-24. or.; J. MARTÍNEZ MONTOYA. "La montaña como espacio privilegiado de identificación socio-cultural". In: *loc. cit.*; 97-115. or.; J. A. PERALES DÍAZ. "Montañas, estados y etnicidad. El caso de los valles de Baztán y Baigorri". In: *loc. cit.*; 117-129. or.

3. Lehenago, kulturalismoaren moldeetan zebiltzan autoreekin batera, emakumearen antropologian euskarrituak dauden antropologoek lanak ere aurkituko ditugu, M. T. DEL VALLE eta C. J. CRAWFORDen eskutik, lehenengoak

Pareko dinamika medio, 'arrantza-komunitateak' hartuko dira ikerketarako ardatz nagusi, horien artean transformazio sakonak konfirmatzen joan izan diren neurrian, gaurdaino urreratuko gaituztenak. Tradiziotik eratorritako kulturari –interes erabakigarria zeukan objektua berori– egokitzen zitzaion lekua gizarte bizitzako modelo berriei utziz joan da, arrantzako ekoizpen moduetan izandako eraldaketen ildoan, bizimodu hauen protagonistak beraiek dituzten erlazio-harremanak geroz eta modernoagoa izatearekin batera are eta garestiagoa suertatuko zaien teknologiaren pentzuan, kapitalak domeinu oro izango duen merkatuaren baitan. Arrantzaleek euren merkatuekin dituzten erlazioak eta botere-harremanak definitzeko beharrez nabaritu da, arrantza bera gertatzeko formetan eta kondizio material aldakorretan ere, antropologia ekonomikoak gidatuko duen analisisa baimenduz. Hala nola, José Pascual Fernández eta Juan A. Rubio-Ardanaz⁴ ikerketak gailenduko dira. Horrela, 'itsastar antropologia' abiatuko da, bere ingurugiroak, ekonomikoaz aparte, jai-giroaren eta ikerlan sinbolikoen arloak barneratuko baititu; antropologia historikoa, antropologia ekologikoa eta ondarea. Itsasoarekin erlazio estuan dauden gizon-emakumeen bizimoduei eskainitako bultzadak espezialista askori hauspoa emango die, bere errotzea ahalbidetuz. Beste batzuen artean, Antonio García Allut, David Florido del Corral, Iñaki Martín Bermejo eta Xabier Ezeizabarrena Sáenz, Juan Antonio Apraiz Zallo, Joan Lluís Alegret Tejero edota Miquel Martí Llambrichekin kontatuko genuke⁵.

Ulertu dezakegunez, Itsas antropologia gogor sartzen da ikasketa eta ikerkuntzaren markoan, une horretaraino itsastar gizarte eta kultura arrantzaleari emaniko arreta urria nolabait ekidinez eta areagotuz. Anton Erkoreka antropologo eta ikerlariaren hitzetan, laurogeigarren urteetaraino itxaron behar izan zen, itsastar munduarekin harremana zuten gaiak gure artean sistematikoki ikasten hasteko. Zentzu honetan, orain funtsean gizarte eta kultur antropologiari sarrera baimenduz, garrantzizko aurrekariak izan ditugu. Lehendabizikoa: *Bermeo. Udalerrri eta itsasoko gai ei buruzko Aldizkaria*, aipatu ikerlariak lan neketsu baizen prestuaz zuzendua⁶. Eta horrelaxe, *Itsas memoria – Euskal Herriko itsas gai ei buruzko Aldizkaria*, 1996 eta 2016. urteen bitartean *Untzi Museoak* (Donostia-San Sebastian) Jose Mari Unsain eta Soco Romanoren zuzendaritza ezin hobez editatua.

Sintesi gisara, 1997 eta 2007. urteen artean *Zainak. Antropologia-Etnografia Koadernoak* aldizkarian, itsasoko gai antropologikoak biltzen dituzten bost zenbaki monografikok argia ikusiko dute. Bertan, euskal kostaldetik haragokoak diren sona handiko adituek ere kolaboratuko dute; horien artean Aliette Geistdoerfer frantziar antropologoa izendatu daiteke, eta berak ondo mugaturik proposatzen duen itsas gaien ikerketa antropologikoen eremua⁷. Izan ere, itsas gaien ikerketa aukera emankor lez bistaratzen da, hemen esandakoaz gainera, zenbait fasetan edo etapatan abiatuz: kultura materialaren interesa, baliabideen kudeaketa, itsasoko eta arrantzako ezagupenen bilketa, praktika sinbolikoak, araudiak, politikak, errealitate ekonomiko eta laboralak. Ikusten dugunez, gaien irekiera eta zabalkunde oparoa gertatzen da⁸.

funtzionalismoaren eraginarekin eta bigarrena pertsonalitatearen antropologiaren eremuan kokatua. Bestalde, J. M. APALATEGI, euskal kulturari buruzko bere analisisetan, estrukturalismoaren posizioetara gehiago hurbilduko da. Bien bitartean, C. ESTEVA FABREGATEK edota P. BIDARTEK, funtzionalismoaren joeretatik lan egingo dute.

4. J. PASCUAL FERNÁNDEZ. "Campesinos y pescadores: un problema de definición". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 1987, 15; 15-28. or.; J. A. RUBIO-ARDANAZ. "La práctica de la pesca de artes menores en Santurtzi: una introducción a la antropología marítima". In: *loc. cit.*; 39-57. or. Ikuspuntu teorikotik, maiztasunez kontsultatua eta aipatua izan den artikulu hau azpimarratu daiteke: J. A. RUBIO-ARDANAZ. "La antropología de la pesca, campo y oportunidades para la investigación antropológica: perspectivas desde el formalismo, sustantivismo y materialismo". In: *loc. cit.*; 237-257. or.

5. GARCÍA ALLUT. "La pesca artesanal gallega y el problema de la comercialización: *lonxanet.com*, una alternativa más que virtual". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2003, 25; 17-32. or.; D. FLORIDO DEL CORRAL. "La virtualidad de las Cofradías de Pescadores en Andalucía". In: *loc. cit.*; 37-57. or.; I. MARTÍN BERMEJO. "El pescador actual, la tecnología y la gestión de los recursos pesqueros: extrapolando el caso de Orio". In: *loc. cit.*; 59-93. or.; X. EZEIZABARRENA SÁENZ. "Política pesquera comunitaria y conservación de los recursos marinos". *Ibidem*; 95-111. or.; J. A. APRAIZ ZALLO. "La pesca artesanal en el siglo XX. Cambios y transformaciones en la Costa Vasca". *Ibidem*; 327-348. or.; J. L. ALEGRET TEJERO, M. MARTÍ LLAMBRICH. "Valoración patrimonial del sector pesquero. El caso del Museo de la Pesca de Palamós". In: *loc. cit.*; 427-442. or.

6. Bere zuzendaritzapean, itsas gaietan espezializatutako aldizkari honek, hamabi urtez 114 lan originalekin guztira 3.000 orrialde argitaratzea lortu baitzuen. A. ERKOREKA. "Hasiera ekitaldia". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2003, 25; 13-14. or.

7. A. GEISTDOERFER. "L'anthropologie maritime: un domaine en évolution hors cadre traditionnel de l'anthropologie sociale". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2007, 29; 23-38. or.

8. J. A. RUBIO-ARDANAZ. "Presentación. Investigando la esfera marítima desde la antropología, etapas para un campo de oportunidades". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2007, 29; 9-19. or.

Izaera antropologikodun ekarpen berrien artean besteak beste, honako hauek etorriko dira aldizkariko orrialdeak aberasteko asmotan: Pío Pérez Aldasoro, Jaime Anduaga Matud, Rosa García-Orellán, Eliseu Carbonell Camós, Xabier Armendariz Abajo, José M. Matés Luque, Ane Izara Uriarte eta Gonzalo Duo Benito⁹.

Bikoiztasun horri –oro har, baserritarra eta arrantzalea– ingurune urbanoa gehituko zaio, berton kontzentratzen baita herrialdeko populaziorik nagusia. Era honetara, 2000. urtetik, *Zainak. Antropología-Etnografía Koadernoak* aldizkariko orriek hiri-antropologiari progresiboki lekua utziko diote. Batez ere migrazioen aferaz kezkatua, generoa eta identitate kolektiboak. José Ignacio Homobonok jakintza arloa teorikoki finkatuko du¹⁰. Alde batetik, F. Xavier Medinako eginikoak bezalako ekarpenek garrantzia hartuko dute, Bartzelonako euskal etorkinetan eta Andaluziatik heltzen zirenetan zentratua, eta bestetik Ana Aliende Urtasunen lanak, Iruñean gertatzen den aisialdiaren egituraketaz hausnartzen duena. Bestalde, Jesús Oliva Serranok eta María J. Rivera Escribanok hiri horretako metropolian gertatzen diren etxebizitza estrategietan sakonduko dute¹¹. Norabide honetan monografiko berriak argitaratuko dira euren ikusmira hiriak historian izan duen bilakaeran jartzen dutenak (Bergara, Pasaia, Bilbao), arkitektura neo-euskalduna, landa-eremutik hirirako pasabidea eta espazioen erabilerak. Antropologiaren parametroetatik hiria ikusteak bere antolaketa estrategiei so egitea ere eskatuko du (Bilbo Zaharra¹²); gizarte-mugimendu urbanoak; tokian tokiko garapen lokala; auzoen lurralde-nortasuna; turismoa eta festa urbanoak (Irun - Bidasoako eskualdea¹³).

Dakusagunez, hiri-antropologia espazio garrantzitsu bat betez joan da, gerora beste inpultso batzuekin osatuz jarraituko duena. Horiei Isusko Vivas Ziarrusta gaineratzen zaie, hirian globalaz eta lokalaz sumatzen diren interakzioak kontsideratuz¹⁴. Iruñean espazio publikoen okupazioei buruzko interes-puntuak nabarmenduko dira, mugimendu sozialak eta dinamizazioa nahiz parte-hartzea¹⁵; hiri-espazioek industriaren aurriekin irudikatzen dituzten harremanak, edota hiri-birmoldaketa Bilbon eta Gipuzkoan¹⁶. Testuinguru honetan, Bilboko periferiek ere

9. PÉREZ ALDASORO. "Lanaren inguruko balioak Pasaiaiko arrantzaleen komunitatean". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2007, 29; 53-63. or.; J. ANDUAGA MATUD. "Hondarribia, gizarte-irudikapena eta baxurako arrantzan emandako aldaketak". In: *loc. cit.*; 81-98. or.; R. GARCÍA-ORELLÁN. "El colapso del bacalao: la construcción de la memoria ayer y hoy". In: *loc. cit.*; 153-169. or.; R. GARCÍA-ORELLÁN. "Mujer pasaitarra en el sector pesquero: recreación de vivencias e imaginarios de la República y posguerra". In: *loc. cit.*, 2010, 33; 439-462. or.; E. CARBONELL CAMOS. "El patrimonio inmaterial marítimo: la etnoclimatología. Reflexiones en torno a la relación del navegante con la naturaleza". In: *loc. cit.*; 27-58. or.; X. ARMENDARIZ ABAJO. "Creencias marineras en el País Vasco entre los siglos XVIII y XXI: evolución de la cultura marítima a través de los exvotos y ofrendas marineras". In: *loc. cit.*; 139-157. or.; J. M. MATÉS LUQUE. "Los últimos boteros de la Ría de Bilbao: entre el Puente de Rontegi y el Puente Colgante". In: *loc. cit.*; 159-179. or.; A. IZARRA URIARTE. "Embarcaciones fluviales tradicionales del río Oria, en Aginaga". In: *loc. cit.*; 181-199. or.; G. DUO BENITO. "Últimos capitanes vizcaínos de veleros mercantes. Cambios en las formas de vida profesional y económica, vecindad y socioculturales (1880-1890)". In: *loc. cit.*; 305-340. or.

10. J. I. HOMOBONO. "Antropología urbana: itinerarios teóricos, tradiciones nacionales y ámbitos temáticos en la exploración de lo urbano". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2000, 19; 15-50. or.; J. I. HOMOBONO. "Miradas socioantropológicas sobre la ciudad y sus culturas (una presentación)". In: *loc. cit.*, 2003, 19-52. or.

11. F. X. MEDINA. "Migraciones en un contexto urbano. Un estudio comparativo de las inmigraciones vasca y andaluza en Barcelona". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2000, 19; 97-106. or.; F. X. MEDINA, "Ciudad, etnicidad y alimentación. Restaurantes, tabernas y la construcción de territorios de identidad vascos en Barcelona". In: *loc. cit.*, 24; 835-846. or.; A. ALIENDE URTASUN. "¿Es Pamplona una ciudad ociosa? Tiempo libre y ocio en los barrios de Pamplona". In: *loc. cit.*, 19; 143-168. or.; J. OLIVA SERRANO, M. J. RIVERA ESCRIBANO. "Utopías y sentidos de habitar la ciudad dispersa: estrategias residenciales en el área metropolitana de Pamplona/Iruñea". In: *loc. cit.*, 23; 137-153. or.

12. E. ARNAIZ GÓMEZ. "Movimientos sociales urbanos en Bilbao la Vieja". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2003, 24; 691-706. or.

13. M. L. BULLEN. "Transformaciones socioculturales y la recreación de una fiesta". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2003, 24; pp. 937-953. or.

14. J. I. HOMOBONO MARTÍNEZ, I. VIVAS ZIARRUSTA. "Ciudades globales y culturas locales. Aproximación a la temática de este monográfico". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 31; 13-71. or.

15. A. ISO TINOCO. "Los centros comerciales del área metropolitana de Pamplona. Imaginarios sociales, cambio y reestructuración". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 31; 257-273. or.; M. RAZKIN FRAILE. "Las huertas de Pamplona; con la azada en alto. Ocupación de los espacios urbanos para un uso hortícola". In: *loc. cit.*; 275-290. or.

16. A. LEKERIKABEASKOA GAZTAÑAGA, I. VIVAS ZIARRUSTA. "Tras las huellas de un paisaje cultural. Espacios anti-urbanos, territorio 'des-urbanizado' y ruina industrial: dobles miradas desde la escultura". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 31; 305-326. or.; E. DÍEZ PATON. "El papel de los monumentos histórico-artísticos en la remodelación urbana de Bilbao". In: *loc. cit.*; 449-466. or.; A. J. GÓMEZ GÓMEZ. "De la estampa de la residencia real a la fotografía de la vivienda obrera de Bilbao 1911-1936". In: *loc. cit.*, 2009, 32; 755-771. or.

interesa piztuko dute¹⁷ edo globalizazioari erreferentzia egiten dion ondarea Vitoria-Gasteizen¹⁸; eta noski alderdi sinbolikoak¹⁹. Aipatu gaien zabalkundea, izatez orientazio soziologikoa propioki darien lanekin elkarkidetzan atzemango baitugu.

Goraipatzeak lirateke, hain zuzen ere, gizarte eta antropologiaren testuinguruari atxikitako ikerketak eta etxebizitzarik ez izatea bezalako gai korapilatsuetara urreratzen direnak; hirietan gainbeheran dauden zonaldeetan nozitzen den gentrifikazioa, hiri-eraldaketarekin bat datozen nazioarteko migrazio fluxuak (Bilboko San Frantzisko auzoa, esaterako), eta populazio berriaren presentzia Donostiako kasuan. Aipagarriak lirateke, kasu honetan, A Coruña²⁰ udalerrian enpresa txikien jabe direnei eginiko hurbilpenak. Perspektiba antropologiko eta soziologikoetatik hiriarenganako interesak ostera ere bere espazioa beteko du azken monografiko batekin; *Espacios públicos: usos discursivos y valores* tituluaz 2013an argitara eman zena, José Ignacio Homobono Martínez eta Isusko Vivas Ziarrustaren gidaritzarekin.

Baserri-giroa, itsastar-arrantzalea eta urbanoa orain alde batera utzita, sinboloen eta erlijiosotasunaren munduari eskainitako arretak bere inportantzia izango du, aspektu hauei dedikaturiko beste hiru zenbaki monografikorekin. 1998an, 2004an eta 2006an urrenez urren, honako izenburuok agertuko dira: *Religión y símbolos*; *Fiestas, rituales e identidades* eta *Formas de religiosidad e identidades*. Aitzitik, elikaduraz aritzen den antropologiak bereganatuko du espazioa, bertan batik bat antropologia biologikoak lekua hartuz. Esther Rebatoren lanak orogarriak dira hemen, lau monografikoren edizioaz arduratuz: *Nutrición, alimentación y salud: influencias antropológicas* (2000), *La imagen corporal, entre la Biología y la Cultura* (2005), *Usos y costumbres en la alimentación* (2008), eta *Alimentación y globalización* (2011). Antropologo honekin elkarlanean Iciar Salces Betiren lanak argitaratuko dira edota Javier Rosiquerenak, gizarte antropologiatik Jesús Contreras Hernández eta Mabel Gracia Arnaizenekin osatuz.

Osteratxo honek, oraingo data honetaraino argia ikusi duten edukien aberasgarritasunaren alderdi bat erakusten digu, *Zainak. Antropología-Etnografía Koadernoak* aldizkariaren zenbaki berri honekin, alegia, Euskal Herriko gizartean eta kulturen batez ere barnebidutako lan garrantzitsuari jarraipena emango dioten ikerketa gaurkotuak planteatzeko aukera paregabea dugun bitartean. Hasiera-hasieratik aldizkari honen izatea bera posible egin duten autore guztiak aitatu ez baditugu ere, den-denen balioa aitortu beharrean gaude. Beroriek baitira errealitate konkretuen lekukotasunik oparoenak laga dizkigutenak, proposamen teoriko desberdinetatik eta kezka-iturrien lekutze anitzetik; hauei esker hobeto eta sakonago ezagutu baititzakegu herri honetako kultura eta gizartea.

Aipatu dugun zentzuan, ezin dugu bukatu neke barik *Eusko Ikaskuntzan* aritu ziren hiru ikerlariri goratarre egin gabe, bere garaian *Antropologiako Sail Zientifikoan* zeudenak eta beraien lanak *Zainak. Antropología-Etnografía Koadernoak* aldizkariaren parte ere badirenak. Lehendabizikoa Antxon Aguirre Sorondo da (Donostia-San Sebastián, 1946-2014), antropologoa, etnografoa eta historialaria. Horrez gain, "kulturen dibulgazioan eta ondarearen defentsan eskarmentu handikoa". Gibelean euskal kultura herrikoiari buruzko lan-ildo izugarria oparitzen diguna, "medio humanoaren behaketatik abiatuz, proiektuak bata bestearen ondoren suite moduan kateatuak" eraman zituen "antropologoa, hain zuzen ere, bere ahalegin

17. F. J. MUÑOZ FERNÁNDEZ. "Habitar periferias urbanas: la gestión de la vivienda en los márgenes de la ciudad en Bilbao". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 32; 773-803. or.

18. J. I. ARANES USANDIZAGA, C. LANDA MONTENEGRO, C. PAZ CAMAÑO, L. SEBASTIÁN GARCÍA. "Aproximación al Casco Antiguo de Vitoria-Gasteiz como espacio para la cultura. Un ensayo de análisis hermenéutico". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 31; 431-447. or.

19. I. REMENTERIA ARNAIZ. "Influencia del paisaje urbano en la configuración del imaginario". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 32; 709-725. or.

20. S. BACHILLER PORRO DE SOMENZI. "De la desafiliación a la reafiliación. Aportes de la antropología social para una mejor comprensión del sinhogarismo y los procesos de exclusión social". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2009, 32; 833-853. or.; M. EGIZABAL SUÁREZ. "La territorialización del arrabal bilbaíno. Nuevas y antiguas formas de uso del espacio público en el barrio de San Francisco". In: *loc. cit.*; 977-993. or.; A. GÓMEZ SEGUEL, E. SANTAMARÍA LÓPEZ. "El lugar locutorio y el espacio transnacional: Aproximación etnográfica a los flujos de la identidad". In: *loc. cit.*; 1061-1077. or.; A. M. VILLALÓN GONZÁLEZ. "Establecidos y *outsiders* en Donostia, reflexiones sobre prácticas y espacios en la ciudad". In: *loc. cit.*; 1135-1146. or.; P. ALONSO PARDO, M. VILLARES VARELA. "El empresariado étnico en el municipio de A Coruña: redes socio-espaciales de su asentamiento desde la etnografía urbana". In: *loc. cit.*; 1185-1207. or.

propioarekin antropologikoki identifikatua²¹. Bere esku-idatzi baten, hainbat eta hainbat bilaketa zein lan neketsuetan diziplinaren baitako bere bokazioa markatu duten egikerak deskribatu zituen. Bere hitzetan –Juan Aguirrek senidetasunez transkribatuak– sentsibiltatea areagotzen zion eta humanoago egiten zion antropologia utzi digu, bestearen nortasun eta pertsonalitatean kokatzerainoko fintasuna eta abilezia lortu arte.

“Dena galdetzearen interesetik, dena jakite horretatik. Mintzatzearen ohitura sortu dut, ezagutzearena, besteen bizitza bizitzearena eta beraz, hortik sentsibiltate bat jaio dela igartzen dut, bestea maitatzeko ahalmen handiagoz. Ezagutzatik baitator, orotara, maitatzeko ahalmen handiago hori²².”

Bere obrak esparru zabala biltzen du, interes puntu nagusi hauetan finkatuz: haratuzteak, tradiziozko lanbide-ofizioak –Mendaroko txokolateak adibidez–; egur-tornulariak; artisautza; Gipuzkoako ontziolak; erriberako (ibaierako) zurgintza; kanpaien eta bere funtzioen azterketa (“kanpailogia” delakoa); disko erako estelak eta hauen ikasketarako metodologia; Gipuzkoako baselizak (“goi-zaindariak, koordenadak, egoera, beraien kanpo eta barneko arkitektura zein ikonografiaren deskribapenak, historia, ekonomia, kultura, jaiak”); mendi-izoztegiak eta funtzioak (Nafarroa); tipologia askotariko errotak (“molinología” gazteleraz deitua izan dena) eta abar. *Zainak. Antropologia-Etnografia Koadernoak* aldizkariaren orrialdeetan itzulitako inbentario luzea, baita beste aldizkariaren ezein zenbakietan eta argitalpen espezializatu askotan ere. Beti miaketa eta proiektu berrietan murgildua, ikasketa eta ikerketarako lankidetzak erakundeak sortzen, beste batzuetan parte-hartzen eta bere gogoeta zein aurkikuntzak aurkezteko asmoz kongresu nazional zein nazioartekoetara joz, baina lehenengo tokian tokiko landa-lanean presente egonik etnografia zuhurra praktikatzeko, zehatza eta gizarte-bizitzaren protagonista diren gizon-emakumeenganako hurbila.

Pertsona hauen eskuzabaltasuna, dena den, museoetan edota artxibo material etnografikoetan txertatuak gelditu diren ondare-bilduma eta dokumentuen dohaintzan hezurramitu izan da, beraien ibilbidean konstante edo “ohiko egoera bat definitzen duena: gure aurrekoengandik eta aitzindariengandik jasotarikoa gure ondoren izango direnen zerbitzura jartzearen garrantzia” (Bilboko *Euskal Museoa*, Donostiako *San Telmo Museoa*, *Artziniegako Etnografia Museoa*, beste erakunde batzuen artean). Gaur egun *Gordailun (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa, Irun)*²³ jarria eta kontsulta askerako irekia.

Bai bere ikerketa eta argitalpenei, baita musika, poesia, *Eusko Ikaskuntzan* bezainbat antropologia sailean izan duen presentzia aktiboari esker ‘espresatua’ eta ‘inprimatua’ geratu den beste aztarna bat, euskal kulturaren maitale zintzo eta ikerlari emankor izan zen Manex Pagolari dagokio (Landibarre/Baiona, 1941-2018). *Bordeleko Unibertsitateko* gizarte eta kultur antropologian doktorea (1995), *Baionako Euskal Museoa* lan egin eta zuzendariorde izan zen, erakunde honetatik unibertsitate-fakultaterik, irratirik ez bestelakorik ez izateagatik zegoen hutsunea betez, ikasketarako erreferentzia bakarra izanik. Euskal kultura eta gizartearen ikasketagile sutsu izateaz gain, bere konpromisoak, beste aktibitate batzuen artean, *Seaskaren* (Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa) fundatzaileetako bat izatera eraman zuen, *Gure Irratia* eta *Euskal Herriko Artistak*, 2018an ohorezko *Euskaltzain* izendatua izan zelarik.

Sentimenduzko oroitzapen honetan, balegoke esatea nolako txeraz eta konpromisoaz parte hartu zuen *Itsas Antropologiako III. Jardunaldien* antolaketan, 2000. urteko maiatzean Donibane Lohitzunen egin zirenak²⁴. Orduan aurkezturiko lan baten, “Euskal Arrantzaleak eta Gaskoin arrantzaleak²⁵” lemarekin, gizatalde bati dagokion jarduera ekonomiko legez arrantzak duen garrantzia azpimarratzen zuen, euren gizarte-harremanak, bai kanpora edota barrura begira, kontuan hartuak izan behar direlarik. Aldaketez kezkatua, euskal eta gaskoi arrantzaleen arteko konparaketa baten, beraien biziraupena eta orekaren mantentzeko agerturiko ezagutza eta teknologia berrien garrantzia baloratu zuen. Euskal gizartearen muinoan gertaturiko eraldaketen

21. J. AGUIRRE SORONDO. *Antxon Aguirre Sorondo*, Manuel Lekuona Saria - Premio Manuel Lekuona, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 31, 2015.

22. *Idem*.

23. *Idem*.

24. M. PAGOLA, J. A. RUBIO-ARDANAZ. "Arrantza eta Itsasoa Euskal Herrian: antropologiko ikuspuntutik". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2002, 21; 9-10. or.

25. M. PAGOLA. "Euskal arrantzaleak eta Gaskoin arrantzaleak". In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2002, 21; 113-116. or.

adibide honek, bere ibilbidean barne bideratu du Manex Pagola ezagutzaren bilaketaren etengabeko konpromisora, baita artearen mailan, kulturen eta politikan ere.

Orrialde hauetatik zintzotasunez eta berotasunez zoriondu nahi dugu Fermin Leizaola Calvo antropologoa, duela gutxi Manuel Lekuona Sariaren (2017) irabazle izan dena, honekin *Eusko Ikaskuntzak* aitorten berezia egiten dielarik, *opera omnia*, euren ibilbidearekin euskal kulturarekiko bikaintasunezko tokia bete duten pertsonen²⁶. Omendutakoarentzat euskal kultura, beste aspektu askotarikoen artean ikerketarako arrazoia da, irakaskuntza eta ezagutza zientifikoa. Bere hastapen-pasioetako bat espeleologia bazen ere, laster arlo hori “baserri eta nekazal/abeltzain mundua habitatzeko dutenek pizturiko lilurak” ordezkatzeko zuen, “ohiturazkoak deritzen bizitza moduetan izandako aldaketetan” interesa agertuz. Horrela, landa-lan jarraituaz tradiziozko euskal gizartearen ikertuko du “bere emaitza eta agerkari anitzetan, magikotasun eta erlijiosotasunetik hasita arkitektura popularrera, kultura materialetik iraganda”²⁷.

Kultura materialaren ikerketaren aditu handi hau, sari honen merezitako irabazlea baita, bere meritu eta ahaleginak orrialde honen oinean aipatzen den eta bera ere antropologoa den Aitzpea Leizaola Egaña zehaztasunez biltzen dituelarik. Dena dela, *Zainak. Antropologia-Etnografia Koadernoak* aldizkarian plazaraturiko balio handiko ekarpenei egin nahi diegu aipamen berezia, bere egite antropologiko, etnografiko eta ondareari dagozkien artean izeberg baten punta baino adierazten ez dutela. Fermin Leizaola, diktadura frankistaren osteko berrezarpenetik *Eusko Ikaskuntzako* bazkide, jada desagertua den *Antropologiako Sail Zientifikoko* partaideen artean goraiagarria da bere etengabeko presentziagatik, laguntza eta kolaborazioagatik. Bere aztarnak kongresuetan, jardunaldietan eta argitalpenetan dirau –Miren Egaña Goyarekin batera–, aipatu sailak eginiko bilera zientifiko ‘guztietan’ izanik, erantzukizunak hartuz, gure topaketak egiten genituenean, Euskal Herriko bazter guztietara irteerak antolatuz, eta beti ere parte-hartzaileen elkarkidetzaren aberastuz batik bat ikerketaren, esperientzia antropologikoaren eta landa-lanaren ekarpen eskergarekin. Zorionak Fermin Leizaola, horren merezia duzun sari honengatik!

Zainak. Antropologia-Etnografia Koadernoak ezagutzarako bitarteko gisa eta ezagutza horren komunikaziorako tresna-lanabes izaten asmatuko duela itxaronez, lerro hauei amaiera ematen diegu etapa berri honekin irekitzen zaigun aukera balioztatuz, hemendik aurrera ‘sarean’ argia ikusiko baitu, egungo teknologia berrietara egokituz. Honaino argitaratuak izan diren lan piloak, eta etortzeaz leudekeenak, Euskal Herriko gizarte eta kultur bizitzara egin daitekeen hurbilpen hobeago batentzat iturri aberats bezain oparoak izan daitezkeela deritzogu. Gure asmorik tinkoena da aldizkaria ikerkuntzako idazlan zientifikoentzat abiapuntua izan dadila, izaera berritzailearekin ez ezik autore hasiberriekin zein dagoeneko eztabaidaekin direnekin, nazioarteko dokumentu-baseetan bere presentzia gehituz, kalitatezko eta prestigiozko indize bibliometrikotan sartuz doan heinean.

26. Ikus bere bibliografia zientifiko zabala, azkenik hemen idatzia: A. LEIZAOLA EGAÑA. *Fermin Leizaola Calvo*, Manuel Lekuona Saria - Premio Manuel Lekuona, Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 34, 2017.

27. *Idem*.